

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

3703

AGINDUA, 2025eko uztailaren 9koa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, irakurketa eta Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegien zerbitzuen erabilera sustatzeko dirulaguntzak arautzeko eta dirulaguntza horien 2025eko deialdia egiteko dena.

Euskadiko Liburutegien urriaren 26ko 11/2007 Legearen bidez sortu zen Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea, eta sare horri dagokio, besteak beste, liburutegiei laguntza-programak eta -zerbitzuak ezartzea, batez ere informatika-sareak antolatzeko, irakurketa eta liburutegien erabilera sustatzeko kanpainak bultzatzeko eta funtsez edo bestelakoez hornitzeko.

Era berean, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari dagokio liburutegien alorreko eskumena, horixe xedatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 6.1.d) artikuluan.

Bestalde, sail horren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 26ko 389/2024 Dekretuak, 11. artikulua 2.4 apartatuko a) eta g) letretan, hurrenez hurren, zehazten du Liburutegi Zerbitzuaren eskumena dela «Euskadiko Liburutegien urriaren 26ko 11/2007 Legearen esparruan Euskadiko Liburutegien Irakurketa Publikoko Sareari dagozkion planifikazio-, funtzio-namendu- eta koordinazio-egitekoak garatu eta gauzatzea», bai eta «Irakurtzeko zaletasuna sustatzeko neurriak diseinatzea» ere.

Hori dela eta, eta jakinik haurtzaroan eta gaztaroan errazago hartzen dela liburuekiko zaletasuna eta liburutegiak erabiltzeko ohitura, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren ustez lehentasunezkoa da batez ere herritar horien beharrezanean erantzutea.

Agindu hau, gainera, 2025-2028 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan (PES 2025-2028) sartuta dago. Plan hori Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2025eko otsailaren 27ko Aginduaren bidez onartu zen, eta agindu horren bidez onartzen da, halaber, 2025eko Dirulaguntzen Urteko Plana (PAS 2025).

Alde horretatik, eta deialdi honek liburuekiko eta liburutegiak erabiltzeko ohiturarekiko zaletasuna sustatzea (plan estrategikoaren helburua da) errazten duelakoan, batez ere haurren eta gazteen artean, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Agindu honen eranskineko oinarriak onartzea. Agindu honen bidez, irakurketa eta Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegien zerbitzuen erabilera sustatzeko dirulaguntzak arautzen dira, eta, orobat, dirulaguntza horiek emateko 2025eko deialdia egiten da.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunek, aukerako berraztertze-errekurtsoa jar diezaioke Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari; horretarako, hilabeteko epea dute, agindu hau EHAA

argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako salan, bi hilabeteko epean, agindu hau EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 9a.

Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
IBONE BENGOETXEA OTAOLEA.

ERANSKINA

IRAKURKETA ETA EUSKADIKO IRAKURKETA PUBLIKOKO SAREAN DAUDEN
LIBURUTEGIEN ERABILERA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK ARAUTZEN DITUEN ETA
DIRULAGUNTZA HORIETARAKO 2025EKO DEIALDIA EGITEN DUEN DEIALDIAREN
OINARRIAK

1. artikulua.– Xedea.

Irakurketa eta Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean txertatuta dauden liburutegiaren zerbitzuen erabilera sustatzeko dirulaguntzen 2025eko deialdia arautzea dute xede oinarri hauek.

2. artikulua.– Diru-baliabideak.

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzen gehieneko guztizko zenbatekoa 370.000,00 eurokoa da, eta Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dauden aurrekontu orokorren kargura emango dira.

3. artikulua.– Izapidetzea.

1.– Entitate interesdunek, prozedura honen eskabideak, kontsultak eta izapide guztiak egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa erabilgarri dauden bide elektronikoak erabili beharko dituzte.

2.– Izapidetzeko jarraibideak, ereduak eta eskabide-inprimakia eskuragarri jarriko dira administrazio-prozedurari buruzko informazio-fitxan, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0038312>

3.– Eskaera egin osteko izapideak, berriz, helbide honen bidez egingo dira, bide elektronikoz: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

4.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa onartutako identifikaziorako eta sinadura elektronikorako bitartekoak helbide honetan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

5.– Izapidetze elektronikoa ordezkari baten bidez ere egin ahal izango da, eta, horretarako, ordezkari hori Eusko Jaurlaritzaren ahalordeen erregistro elektronikoa inskribatu beharko da (helbide honetan dago eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/ordezkariak>).

4. artikulua.– Entitate onuraduna izateko betekizunak.

1.– Dirulaguntzen onuradun izan daitezke liburutegi publikoen titular diren Euskal Autonomia Erkidegoko udalak, toki-entitate eskudunak eta udal-liburutegi publikoen arloko zereginak esleituta dauzkaten Euskal Autonomia Erkidegoko udal-entitateak.

Udalerri bakoitzean entitate onuradun bakarra egon daiteke. Horrenbestez, udalerri batean eskaera bat baino gehiago badago, udalaren eskaerak lehentasuna izango du gainerako entitate eskatzaileen aurretik.

Entitate eskatzaile bat baino gehiago badago, eta haietako bat ere ez bada udala, liburutegi gehien kudeatzen duen entitateak izango du lehentasuna. Azken kasu horretan, entitate eskatzaileek liburutegi kopuru bera kudeatzen badute, liburu-funtsen kopuru handiena duenak izango du lehentasuna.

2.– Ezingo dira onuradun izan Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan jasotako debekuren bat duten entitateak.

3.– Aurreko apartatueta dirulaguntzen onuradun izateko adierazitako baldintzak bete beharko dira laguntza-eskaera aurkezten den unetik ematen den dirulaguntza likidatu arte.

5. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

1.– Diruz lagundu ahalko dira 2025eko ekitaldian egiten diren jarduerak, baldin eta irakurzaletasuna sustatzea badute helburu, batez ere haur eta gazteen artean; Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegietan kultura eta liburutegi-zerbitzuak hedatzeko jarduerak bultzatzea helburu duten jarduerak ere lagundu ahalko dira diruz.

Ildo horretatik, besteak beste, hauek izango dira diruz laguntzeko modukoak:

a) Irakurzaletasuna sustatzearen arloan profesionalei prestakuntza espezifikoak emateko jarduerak. Ez dira sartuko joan-etorrien gastuak, mantenukoak eta jarduera horietan parte hartzetik eratorritako gainerako dietak.

b) Irakurketako jarduera osagarriak. Hona hemen adibide batzuk:

- Ipuinaren ordua.
- Irakurketa dramatizatuak.
- Umeentzako irakurketa- eta idazketa-tailerra.
- Literatura-solasaldiak.
- Literaturako sormen-tailerra.
- Literatura-aretoak.
- Helduentzako irakurketa-tailerra.
- Etorkinentzako irakurketa- eta idazketa-tailerra.
- etab.

c) Liburuak eta liburutegiak sustatzeko kanpainak, bereziki haur eta gazteen artean irakurle berriak erakartzeko.

2.– Kanpo uzten da, espresuki, agindu honek aipatzen dituen helburuen barnean jarduera zehatzak egiteko behar ez den material bibliografikoa erostea.

3.– Ezin izango dira dirulaguntza hauetara aurkeztu gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna bermatzen ez duten jarduerak.

4.– Diruz lagundu daitezkeen gastuei dagokienez, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 30. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko da. Hau da, diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira diruz lagundutako jardueraren izaerari zalantzarik gabe erantzuten diotenak. Horrez gain, egindako gastutzat hartuko da justifikazio-aldia amaitu aurretik benetan ordaindu dena.

5.– Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 31.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, entitate onuradunak diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren % 100 azpikontratatu ahal izango du.

Diruz lagundu daitezkeen gastuaren zenbatekoak sektore publikoko kontratazioa arautzen duen araudian kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak gainditzen dituzenean, eta, betiere, horrek berekin badakar hirugarrenekin kontratuak egitea, onuradunak hornitzaile desberdinen hiru eskaintza eskatu beharko ditu, gutxienez, zerbitzua emateko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta, zerbitzu

horren ezaugarri bereziak direla-eta, ez badago merkatuan halako zerbitzurik ematen edo hornitzen duen nahikoa entitate.

Efizientzia- eta ekonomia-irizpideen arabera aukeratuko da aurkeztutako eskaintzen artean (justifikazioan edo, hala badagokio, dirulaguntzaren eskabidean aurkeztu beharko dira eskaintza horiek), eta proposamen ekonomikorik onena aukeratzen ez bada, berariaz justifikatu beharko da memoria batean.

Baldin eta, aurreko paragrafoetan xedatutakoaren arabera nahitaezkoa bada eskaintza bat baino gehiago eskatzea, eta eskaintza horiek aurkezten ez badira, edo ekonomikoki onuragarriena ez den eskaintza bat adjudikatzen bada, justifikazio egokirik gabe, organo emaileak zerbitzuaren peritu-tasazioa eskatu ahal izango du, eta sortzen diren gastuak onuradunaren kontura izango dira. Kasu horretan, dirulaguntza kalkulatzeko, bi balioetatik txikiena hartuko da erreferentziazat: onuradunak adierazitakoa edo tasazioaren ondoriozkoa.

6. artikulua.– Entitate eskatzaileek eskabideak aurkeztea eta betebeharrak eta betekizunak egiaztatzea.

1.– Deialdi honetarako eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2.– Eskabideak bide elektronikoak erabiliz aurkeztuko dira, oinarri hauen 3. artikulua 2. puntuan zehaztutako Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan.

3.– Entitate eskatzaileek euskaraz edo gaztelaniaz aurkeztu ditzakete eskabidea eta agiriak, aukeran. Era berean, prozedura osoan zehar, entitate eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan xedatutakoari jarraikiz.

4.– Eskabideari agiri hauek erantsiko zaizkio:

a) Memoria labor bat, non jasoko baitira burutu beharreko jarduerak, eta proiektua egoki interpretatzeko interesgarri irizitako elementu oro. Memoria hori liburutegiko teknikari arduradunak datatu eta sinatu beharko du.

b) Errolda-datuak, 0 eta 18 urte bitarteko biztanleei buruzkoak. Ez da erroldako ziurtagiririk aurkeztu behar.

c) Liburutegiak kudeatzeko eskumenak dituzten toki-entitateek, eskumen hori egiaztatzeko, agiri bat erantsi beharko dute, non eta aurretik ez duten aurkeztu eta ez dagoen baldintza berean indarrean, behintzat.

5.– Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 9.5 artikulua aplikatuz, entitate eskatzaileak betekizun hauek betetzen dituela adierazten du, eskabidearekin batera aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpen baten bidez:

a) Ez duela dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten dion zehapen administratibo edo penalik, ezta horretarako legezko inolako debekurik ere, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan ezarritakoa barne.

b) Egunean dituela dirulaguntzak itzultzeko betebeharren ordainketak, bat etorri Ekonomía eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduarekin (Agindua, 2023ko otsailaren 13koa, Ekonomía eta Ogasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa).

c) Entitate eskatzaileak helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk eskatu eta, hala badagokio, jaso dituela jakinarazi beharko du, edozein administratibotatik edo ente publikotatik zein pribatutatik etorriak direla ere. Era berean, gainfinantzaketarik ez izateko konpromisoa adierazi beharko du.

d) Era berean, entitate eskatzaileak adierazten du egiazkoak direla eskabidean eta harekin batera aurkeztutako dokumentuetan agertzen diren datuak.

6.– Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 9.5 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, erantzukizunpeko adierazpenean jasotako alderdiak egiaztatzeko, ordeztutako dokumentazioa aurkeztu beharko dute subjektu onuradun gisa proposatzen direnek, kasuan kasuko dirulaguntza emateko prozedura ebatzi aurretik.

7.– Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 9.2 artikulua arabera, deialdi honetan ezin da eskatu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeko.

7. artikulua.– Laguntzen kudeaketa.

Kultura Ondarearen, Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren zuzendariari dagokio agindu honen bidez araututako dirulaguntzak kudeatzeko egin beharrekoak egitea.

8. artikulua.– Akatsak zuzentzea.

1.– Eskabidea izapidetzea onartzeko eskatzen diren agiriak falta direla edo agiri horietan forma-akatsak daudela ikusiz gero, edo eskabidea balioesteko aurkeztutako agirietan akatsak aurkituz gero, hamar egun balioduneko epea emango zaio entitate interesdunari hutsegitea zuzentzeko edo aginduzko agiriak aurkezteko, eta, orobat, jakinaraziko zaio, hori egin ezean, ulertuko dela eskabidean atzera egin duela edo izapidetzeko eskubidea galdu duela; betiere, aurrez dagokion ebazpena emango da, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak 21. artikuluan aurreikusten duenaren arabera.

2.– Entitate eskatzailearen batek eskabidea presentzialki aurkeztu badu, zuzenketak aurkezpen elektronikoaren bidez egiteko eskatuko zaio.

9. artikulua.– Eskabideen ebaluazioa.

Kultura Ondarearen, Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren Zuzendaritzaren titularrari dagokio aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzea, oinarri hauen 7. artikuluan xedatutakoaren arabera. Era berean, zuzendari horrek osatuko du ebazpen-proposamena, eta, hori egin ondoren, Kulturako sailburuordeari igorriko dio. Bertan azalduko dira, hala badagokio, entitate onuradun bakoitzari emandako dirulaguntzaren kopurua, bai eta emandako dirulaguntzak egokiro erabiliko direla ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen diren baldintza guztiak ere.

Deialdiaren xedea betetzen ez duten eskabideak ez onartuzat joko dira.

10. artikulua.– Dirulaguntzen zenbatekoa zehazteko prozesua eta zenbatekoen mugak.

1.– Oinarri hauetan ezarritako betekizunak eta baldintzak betetzen dituzten entitate onuradunen artean banatuko dira agindu honen xedera bideratutako baliabide ekonomikoak.

2.– Biztanleria-irizpidea izango da diru kopuruak zehazteko erabiliko den irizpidea. Entitate onuraduneko haurren eta gazteen biztanleria hartuko da kontuan, 0-18 urteko tarte bakarrean. Horretarako, biztanleen araberrako multzoak ezartzen dira, eta multzo horiei balio homologatu

batzuk eta indize zuzentzaile batzuk aplikatuko zaizkie: zenbat eta biztanle gutxiago izan entitate onuradunek, orduan eta handiagoak izango dira indize zuzentzaileak.

a) Biztanleria homologatua (P).

Herri guztiak haurren eta gazteen biztanle kopuruaren arabera sailkatzen dira, eta, horrela, herrien P balio homologatua lortzen da, eskala honen arabera:

Biztanleria:	P
0tik 100era:	100
101etik 200era:	200
201etik 300era:	300
301etik 500era:	500
501etik 1.000ra:	1.000
1.001etik 2.000ra:	2.000
2.001etik 3.000ra:	3.000
3.001etik 5.000ra:	5.000
5.001etik 10.000ra:	10.000
10.001etik 20.000ra:	20.000
20.001etik 30.000ra:	30.000
30.001etik 40.000ra:	40.000
40.001etik 50.000ra:	50.000
50.001etik 60.000ra:	60.000
10.000naka jarraitzen du.	

Adibidea: 1.145 biztanle dituen udalerrri bat 2.000 dituenarekin parekatuko da, eta 40.127 biztanle dituen beste bat 50.000 dituenarekin.

b) Indize zuzentzailea (IZ).

Koefiziente zuzentzaile hau ezarriko da:

Biztanleria:	IZ
0tik 100era:	10
101etik 200era:	6
201etik 300era:	5
301etik 500era:	3,5
501etik 1.000ra:	2
1.001etik 2.000ra:	1,25

2.001etik 3.000ra:	1
3.001etik 5.000ra:	0,75
5.001etik 10.000ra:	0,5
10.001etik 20.000ra:	0,35
20.001etik 30.000ra:	0,33
30.001etik 40.000ra:	0,31
40.001etik 50.000ra:	0,29
50.001etik aurrera:	0,27

3.– Formula lortzeko, urrats hauek egin behar dira:

1. Entitate onuradun bakoitzaren B balioa eskuratzea; hau da, faktore hauek biderkatzearen emaitza: Biztanleria homologatua (B) eta indize zuzentzailea (IZ).

$$(B = BH \cdot IZ^*)$$

2. B koefizienteen baturaren emaitza (BB).

3. Dirulaguntza kalkulatzeko:

$$\text{Dirulaguntza} = DK \cdot B$$

BB

4. Faktoreak:

P: biztanle-taldeentzako biztanleria homologatua.

IZ: indize zuzentzailea.

B: biztanleria (P) eta indize zuzentzailea (IZ) biderkatzearen emaitza. ($B = BH \cdot IZ$)

BB: entitate onuradun guztien B balioen batura.

DK: baliabide erabilgarriak.

4.– Aurreko hori guztia aplikatu eta gero, onuradunen batek 11.1 artikuluko ehunekoa gainditzen badu, aurrekontuaren gainean onarturiko gehieneko zenbatekoan ezarriko dira dirulaguntzak. Soberakinak gainerako entitate onuradunen artean banatuko dira, eta, horretarako, artikuluko hone-tako kalkulu-prozesuan ezarritako sistema erabiliko da. Gauza bera egingo da behar adina aldiz, eta aurretik lortutako zenbatekoei gehituko zaizkie hori aplikatzearen ondoriozkoak.

5.– Prozeduran goian aipatutako adierazleetatik ateratako datu objektiboez bestelako egitate, alegazio eta frogak ez direnez kontuan hartu, Kultura Ondarearen, Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren zuzendariak egindako ebazpen-proposamena behin betikoa izango da.

11. artikulua.– Zenbatekoa eta bateragarritasunak.

1.– Laguntza hauen xede diren jarduerak egiteko gastuen onartutako aurrekontuaren % 75erainokoa izan ahal izango da dirulaguntza. Gehieneko ehunekoa hori mantendu beharko da amaieran justifikatutako kopuruekiko.

Aurrekoa gorabehera, entitate onuradun bakoitzari emandako dirulaguntza ezin izango da 30.100,00 eurotik gorakoa izan.

2.– Dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko, deialdi honetan aurreikusitako kalkulu-irizpideak aplikatuta lortutako zenbatekoak biribildu egingo dira aurreko edo ondorengo zenbaki oso hurbilenera. Biribiltzearen ondorioz, finantzatu beharreko guztizkoa deialdian finkatutako kreditua baino handiagoa bada, alde hori kendu egingo zaio finantzaketa handiena lortzen duen proiektuari.

3.– Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak edo laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak bateragarriak dira beste entitate publiko edo pribaturen batek helburu bererako ematen dituenekin, baldin eta gehiegiko finantzaketarik gertatzen ez bada, betiere. Izan ere, halakorik gertatuz gero, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da, dagokion gehieneko mugaraino.

12. artikulua.– Ebazpena eta jakinarazpena.

1.– Kulturako sailburuordeari dagokio, Kultura Ondarearen, Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren zuzendariak egindako proposamena ikusita, deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzen ebazpena ematea. Ebazpen horretan, informazio hau adieraziko da: eskatutako dirulaguntza onartzen den ala ez eta ematen den ala ez. Dirulaguntza ematen bada, entitate onuradunaren izen soziala eta emandako dirulaguntzaren zenbatekoa adieraziko dira. Ukatzen bada, berriz, entitate eskatzaileen izena edo izen soziala azalduko dira, baita dirulaguntza zergatik ukatzen den ere. Onartu ezean ere azaldu beharko da zergatik.

2.– Hartzen den ebazpena bide elektronikoz jakinaraziko zaie entitate interesdunei, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da. Errekurtsoak aurkezteko kontuan hartu beharreko data lehenik egiten denarena izango da.

3.–Aurreko paragrafoan aipatzen diren ebazpenek ez diote amaiera ematen administrazio-bideari, eta, haien aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote entitate interesdunek Jaur-laritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpenak jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluei jarraikiz.

4.– Sei hilekoa izango da prozedura ebazteko eta ebazpena entitate interesdunei jakinarazteko gehieneko epea, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Epea igaro eta ebazpenik argitaratu ez bada, dirulaguntzaren eskabidea ezetsi egin dela ulertu beharko dute entitate interesdunek, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25.1.a) artikuluan xedatutako ondorioetarako.

5.– Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz, oinarri arautzaileetan baimendutako kasuetatik kanpo beste ekarpen batzuk lortzen badira aldi berean, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu egingo da.

13. artikulua.– Entitate onuradunen betebeharrak.

Betebehar hauek izango dituzte agindu honetan ezarritakoaren arabera araututako dirulaguntzak jasotzen dituzten entitateek:

a) Emandako dirulaguntza onartzea. Alde horretatik, dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazi eta hamabost eguneko epean entitate onuradunek berariaz uko egiten ez badiote dirulaguntzari, onartu egin dutela ulertuko da.

b) Agindutako xede zehatzerako erabiltzea dirulaguntza.

c) Dirulaguntza ematea eragin duen jarduera gauzatzea.

d) Dirulaguntza eman duen entitatearen aurrean justifikatzea laguntza ematea eragin duten betekizunak eta baldintzak betetzen direla eta jarduera bera gauzatu dela.

e) Laguntza eman duen entitateak egiten dituen egiaztapenen mende eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak burutzen duen ikuskaritzaren mende egotea, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura eskuratzen diren laguntza edo dirulaguntzei dagokienez. Era berean, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren araudi bereziko neurrien mende ere egotea.

f) Beste edozein administraziok, ente publikok edo pribatuk helburu bererako emandako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak eskuratuz gero, horren berri ematea dirulaguntza eman duen entitateari.

Hori jakin bezain laster egin beharko da jakinarazpen hori, eta, nolahi ere, jasotako funtsei emandako erabilera justifikatu baino lehen edo justifikatzeko unean.

Beste entitate publikoei zein pribatuei xede berberarekin dirulaguntzarik eskatu bazaie eta agindu honetan arautzen diren dirulaguntzetarako eskabidea egiteko unean erabakitzeke bazeuden edo haien egoeraren berririk ez bazegoen, laguntza horien egoera adierazi behar da.

g) Laguntza ematerakoan kontuan izan zen dena delako egoera objektiboa edo subjektiboa aldatu bada, horren berri ematea laguntza eman duen entitateari.

Hori jakin bezain laster egin beharko da jakinarazpen hori, eta, nolahi ere, jasotako funtsei emandako erabilera justifikatu baino lehen edo justifikatzeko unean.

h) Jasota uztea Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren Liburutegi Zerbitzuak emandako babesa jaso dela, dirulaguntza honen bidez egiten diren jarduera eta agiri guztietan, bai eta horien publizitatean ere.

i) Herritarrekin, ahozko eta idatzizko harremanetan euskararen erabilera bermatzea.

j) Hizkuntza eta irudiak ikuspegi intersektionalarekin eta, bereziki, sexuarekin eta generoarekin errespetuz erabiltzea dirulaguntzaren xede den jarduerak edo proiektuak behar dituen dokumentazio eta material guztietan.

Era berean, jarduera horietan, jarduerak eskaintzean bertan bermatuko da ez dela erabilera estereotipaturik egongo gizonen eta emakumeen rolei dagokienez.

k) Oro har, Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legean, zehazki 14. artikuluan, eta dirulaguntzen arloan aplikatzekoak diren gainerako lege-xedapenetan jasotako beste edozein betebeharrak.

14. artikulua.– Dirulaguntzen justifikazioa, likidazioa eta ordainketa.

1.– Dirulaguntza agiri bidez justifikatuko da 2025eko abenduaren 19a arte.

2.– Justifikazio horiek bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu beharko dira, webgune honetan: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

3.– Justifikazioa egiteko, dokumentazio hau aurkeztu behar da:

a) Benetan egindako jardueren memoria. Horretarako, formatu libreko zerrenda bat baino ez da behar, informazio honekin:

– Jardueraren izena (gutxieneko deskribapena).

– Jarduera bakoitzaren saio kopurua (jarduera bera errepikatzen bada soilik).

– Jarduera bakoitzeko parte-hartzaile kopurua (saio bat baino gehiago badago, saio guztien arteko kopurua guztira).

– Ahal izanez gero, egindako jarduera bakoitzaren argazki adierazgarri bat.

b) Kontu-hartzailearen edo idazkari kontu-hartzailearen «Justifikazio-ziurtagiria» aurkeztu beharko da, informazio hau duela: egindako gastuak eta, halakorik balego, helburu bererako jasotako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideen zerrenda. Helbide honetan dago eskuragarri ziurtagiri horren eredia: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0038312>. Aurkeztu beharko dira, halaber, fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio bera duten edo administrazio-eraginkortasuna duten dokumentuak, 2025eko ekitaldian benetan egindako gastua egiaztatzeko.

Baldin eta eskabidean aurkeztutako jardueraren baten orde zede bereko baina izaera desberdineko beste jarduera bat egitea justifikatu behar bada, betearazpenari buruzko memoria bat ere aurkeztu beharko da.

Jarduerak dirulaguntzarekin ez ezik, funts propioekin edo beste dirulaguntza edo baliabide batzuekin ere finantzatu badituzte, justifikazioan hau guztia egiaztatu beharko da: dirulaguntza jaso duten jarduera horietarako zenbat diru erabili den, nondik etorri den eta zertan erabili den.

4.– Aurkeztutako agiriak jasota eta aztertuta, Kultura Ondarearen, Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren zuzendariak aginduko du dirulaguntza ordaintzeko, eta, hala behar denetan, minorazio bat egiteko dagokion prozedurari jarraikiz. Gainera, likidatzeko ebazpen-proposamena egingo dio Kulturako sailburuordeari, zeinari baitagokio ebazpena ematea bi hilabeteko epean, justifikazioak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera.

5.– Dirulaguntza egiaztatzeko eskumena duen organoak ikusten badu zuzendu daitezkeen akatsak daudela onuradunak aurkeztutako justifikazioan, horren berri emango dio onuradunari, eta 10 eguneko epea emango dio zuzentzeko.

6.– Justifikazioa ez bada aurreikusitako epean aurkezten, pertsona edo entitate interesdunari eskatuko zaio hamabost eguneko epean aurkeztu dezala. Epe hori igaro eta justifikazioa aurkeztu ez badu, dirulaguntza likidatzeko prozedurari ekingo zaio.

7.– Ematen diren dirulaguntzak aldi bakarrean ordainduko dira, betiere laguntza justifikatu eta gero, eta egiaztatu ondoren diruz lagundutako jarduera benetan gauzatu dela, dagokion helbururako egokia dela eta kostuaren zenbateko osoa.

8.– Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiari buruzko irailaren 30eko 211/1997 Dekretuaren 20. artikuluan xedatutakoa betez, entitate onuradunek alta emanda egon beharko dute Ogasun eta Finantza Sailaren Hirugarrenen Erregistroan.

Erregistratuta ez badago edo Ogasun eta Finantza Saileko Hirugarrenen Erregistroan dauden banku-datuak aldatu nahi badira, alta edo aldaketa egiteko helbide honetara jo ahal izango da: <https://www.euskadi.eus/hirugarrenak>. Bertan, inprimakia deskargatu daiteke. Baliabide elektriko-koz ere egin daiteke.

15. artikulua.– Dirulaguntza itzultzeko arrazoiak.

1.– Hauek hartuko dira dirulaguntza itzultzeko arrazoitzat:

a) Jasotako dirulaguntzak, osorik edo zati batean, eman diren proiektuez bestelakoetan erabiltzea.

b) Oinarri hauetan ezarritako betebeharrak edo, hala badagokio, laguntza emateko ebazpenean adierazitako baldintzak ez betetzea.

c) Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. artikuluan araututako gainerako itzulketak-arrazoak.

d) Dirulaguntzen arloan aplikagarria den beste xedapen batek oro har ezarritako beste edozein betebeharrak ez betetzea.

2.– Haietako ez-betetzereen bat gertatuz gero, jasotako zenbatekoak eta dirulaguntzen arloan aplikatzekoak diren berandutze-interesak itzuli beharko zaizkio, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari, Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 40. eta 41. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera eta artikuluko horietan aurreikusitakoa betez.

3.– Nolanahi ere, entitate onuradunaren betetze-maila nabarmen hurbiltzen bada guttiz betetzera, eta hark egiaztatzen bada egindako jarduerak argi eta garbi bere konpromisoak betetzera bideratu dela, dirulaguntzaren benetako zenbatekoa dirulaguntzaren xede den jardueraren ez-betetzereen mailaren arabera izango da, proportzionaltasun-printzipioa errespetatuz.

Horrenbestez, jarduerak partzialki ez betetzea onartu ahal izango da, baldin eta diruz lagundutako jardueraren helburuak eta konpromisoak betetzera bideratutako jarduerak egin dela argi eta garbi egiaztatzen bada, eta jardueraren betetze-maila diruz lagundutako proiektuaren aurrekontu osoaren % 65era iristen bada gutxienez.

Kasu horretan, dirulaguntza emateko ebazpena aldatuko da, eta benetan emandako zenbatekoa murriztu egingo da aurrekontu osoatik benetan justifikatutako zenbatekoaren proportzioan.

Salbuespen gisa, proiektuak aurretik ezarritako ehunekora iristen ez bada, dirulaguntzaren organo kudeatzaileak ez-betetze partzialak daudela balioetsi ahal izango du, baldin eta dirulaguntzaren onuradun den pertsonak edo entitateak egindako lanek berezitasun eta espezifikotasun objektiboak badituzte, eta, berez, diruz lagundutako proiektuaren xedeari balio erantsia ematen badiote.

16. artikulua.– Datuen babesari buruzko oinarriko informazioa.

Datu pertsonalak erabiliko dira, eta tratamendu-jarduerak honi erantsiko zaizkio: Kultura Ondarearen arloko laguntzak eta dirulaguntzak.

Arduraduna: Kultura Ondarearen, Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren, Kultura eta Hizkuntza Politika Saila.

Xedea: Kultura Ondarearen arloko laguntzak eta dirulaguntzak kudeatzea.

Legitimazioa: datuen tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduen arduradunari emandako botere publikoen izenean gauzatutako misio bat betetzeko.

Hartzaileak: arlo horretan eskumena duten administrazioak.

Eskubideak: datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere.

Informazio gehigarria: gure web-orrian kontsultatu dezakezu Datuen Babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua: www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gar-dentasuna/026100-cap2-eu.shtml

Araudia: Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra; 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko.